ULERMENA

Nire amona Mirenek euritako gorri bat erosi dit. Tip-tap, tip-tap egiten du euriak euritako gainean. Busti gabe iritsi naiz ikastolara. Andereñok esan dit euritakoa oso polita dela. Eta orain lehortzen ari da.

1. **Nola du izena amonak?**

   ☐ Mari. ☐ Miren. ☐ Malen.

2. **Zein koloretakoa da euritakoa?**

   ☐ Gorria. ☐ Morea. ☐ Berdea.

3. **Zer egiten du euriak euritako gainean?**

   ☐ Tik-tak. ☐ Tip-top. ☐ Tip-tap.

4. **Nola iritsi da ikastolara?**

   ☐ Bustita. ☐ Busti gabe.

5. **Zer esan dio andereñok?**

   ☐ Euritakoa itsusia dela. ☐ Euritakoa polita dela.

   ☐ Euritakoa berarentzat nahi duela.